

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA, ERAKUNDE HARREMANAK ETA BERDINTASUNA SAILA

Euskara Zerbitzua

Bi urteko dirulaguntza-deialdia, euskara sustatzen duten entitateen eraldaketa digitalerako, antolakuntza indartzeko eta komunikazioa berritzeko proiektuak egitearren. 2026-2027 urteak

2026ko uztailaren 3an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zuen bi urteko dirulaguntza-deialdia, euskara sustatzen duten entitateen eraldaketa digitalerako, antolakuntza indartzeko eta komunikazioa berritzeko proiektuak egitearren. 2026-2027 urteak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta dirulaguntzen ordenantza orokorrean arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 3an

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasun Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LOPEZ DE URALDE GOMEZ

Sarrera

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren uztailaren 21eko erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua); eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra, 2023ko apirilaren 21eko osoko bilkuran onetsia eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratua (aurrerantzean, dirulaguntzen ordenantza orokorra). Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

1. Dirulaguntzen ildoak

Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urtarilaren 17an onetsi zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2025-2027 aldirako. Plan hori aldatu egin zen geroago, 2025eko otsailaren 21ean eta 2026ko uztailaren 3an. Plan horretan dago jasota dirulaguntzen deialdi hau, sektore euskaltzaleko entitateak modernizatzeko proiektuak sustatzearren, hain zuzen, eraldaketa digitalari, antolakuntza indartzeari eta komunikazioa berritzeari dagozkionak.

2. Deialdiaren xedea eta entitate onuradunen betekizunak

Helburua da dirulaguntzak ematea, euskara sustatzeko xedez diharduten eta Vitoria-Gasteizen egoitza duten entitateen eraldaketa digitalerako, antolakuntza indartzeko eta komunikazioa berritzeko proiektuak egitearren.

Salbuespen moduan, onartu egingo dira Vitoria-Gasteizen egoitzarik ez duten baina udalerrian urtean zehar etengabe diharduten entitateak.

Erakundeen estatutuetan jaso behar dira, besteak beste, euskararen sustapena edo erabilera bera. Azken helburua da elkarte-sarearen iraunkortasuna bermatzea, eta sare horren barne egiturak nahiz inpaktu soziala hobetzea.

3. Diruz lagun daitezkeen proiektuak

Deialdiaren xedea da honako ekintza-ildo hauei dagozkien erakundeen proiektu bat edo batzuk diruz laguntzea:

- Eraldaketa digitala: barne-prozesuak digitalizatzea, kudeaketa-tresnak (CRM/ERP), ziber-segurtasuna eta hodeiko lankidetzak.
- Antolakuntza indartzea: aholkularitza estrategikoa, errelebo-planak, harrera egiteko protokoloak eta idazkaritza teknikoko kanpo-zerbitzuak.
- Komunikazioa eta ikusgarritasuna: auditoriak, sare sozialak berritzea, edukiak (podcastak, bideoak) sortzea eta euskara hiriko espazioetara ateratzeko ekintzak.
- Talde-zaintza: lidergoari eta talde-kudeaketari buruzko prestakuntza, eta talde-kohesioko saioak.

Diruz lagunduko diren proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira.

4. Baliabide ekonomikoak eta gehieneko zenbatekoa

Deialdi honen babesean emango diren laguntzak Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko Euskara Zerbitzuaren 2026 eta 2027ko ekitaldietarako aurrekontuko 0171.3351.48009 partidan kontsignatutako aurrekontu-kredituaren kargura emango dira. Ekitaldi bietako partiden artean 250.000,00 euroko zenbatekoa ezartzen da, gehienez; zehatzago esanda, 125.000,00 euro 2026ko partidan, eta 125.000,00 euro 2027ko partidan.

Proiektu bakoitzeko emango den gehieneko dirulaguntza 20.000,00 eurokoa izango da, eta inola ere ezin izango da jaso aurkeztutako proiektuaren zenbatekoa baino handiagoa.

Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 58. artikularekin bat etorritik (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa), berariaz jaso da zenbateko gehigarri bat ezartzeko aukera, eta zenbateko hori dirulaguntzari aplikatzeko ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea.

Zenbateko gehigarria gauzatzekotan aski kreditu izan beharko du erabilgarri, aipatutako 58. artikuluan jasotako inguruabarren ondorioz, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

5. Proiektuak dagokien taldearen arabera sailkatzea eta balorazio irizpideak

Aurkeztutako proiektu bakoitza jarraian agertuko diren taldeetako batean sartuko da ekintza-ildoaren arabera (proiektu batek talde ezberdinetako ekintza-ildoak izanez gero, jarduera nagusia ikuspuntu ekonomikotik hartuko da kontuan, hau da, aurrekontuan gehien esleitu zaion jarduera izango da erreferentzia). Horrela, talde horri dagokion puntuazioa lortuko da (adibidez, kudeaketa automatizatzeke proiektua bada, 25 puntu lortuko du).

- 1. Taldea. Kudeaketa automatizatzea (25 puntu): dokumentuen kudeaketa fakturatzea, bazkideak gehitzea eta software-tresnak areagotzea, administrazio-orduak nabarmen murrizteko.
- 2. taldea. Lankidetzak eta irisgarritasuna (10 puntu): hodeiko informazioa partekatzeke sistemak, biltzarkide guztiek sarbidea dutela bermatzeko eta informazio-galerak saihesteko.
- 3. taldea. Zibersegurtasuna eta Datuak Babesteko Lege Organikoa (10 puntu): datuak babesteko segurtasun-kopia automatizatuak eta protokolo tekniko zein automatizatuak ezartzea.
- 4. taldea. Xede-publiko berriak (15 puntu): 18 eta 30 urte bitarteko gazteak erakartzeko estrategia zehatzak eta bazkideak gehitzeko helburu neurgarriak.
- 5. taldea. Formatuan sortzea (15 puntu): podcastak, bideo biralak, gamifikazio-aplikazioak edo -tresnak erabiltzea, elkarrearen mezua modernizatzeko.

— 6. taldea. Hirian presentzia izatea (5 puntu): elkartearen lokaletik kanpo, hiriko espazio publikoetan kokatzeko proposamenak.

— 7. taldea. Karga arintzea (10 puntu): idazkaritza teknikorako kanpo zerbitzuak kontratatzea, eta administrazio-zereginak bizkortzeko proiektuak kudeatzea.

— 8. taldea. Funtzioen eta harrerako eskuliburuak (5 puntu): kargu bakoitzaren funtzioak biltzen dituen dokumentua eta kide berrientzako harrera-protokolo idatzia.

— 9. taldea. Barne-kohesioa (5 puntu): lantaldeen arteko harremanak hobetzeko eta burn-out-a prebenitzeko psikologoekin edo dinamizatzaileekin egindako saioak.

Puntuazio gehigarria, esperientziagatik: erakundeak aurretik helburu bera duen edo antzekoa den proiekturik garatu baldin badin badu, proiektu bakoitzeko puntu bat lortuko du; gehienez ere, 4 puntu gehigarri.

6. Laguntza emateko prozedura

Hainbanaketa izango da laguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa deialdiaren aurrekontu osoaren hainbanaketaren bidez kalkulatu da, onartutako eskabideen artean eta honako arau hauekin bat:

— Puntuak kalkulatzeko: proiektu bakoitzari puntuazio bat esleitu zaio, eta hauen arteko biderketaren emaitza izango da: proiektua dagoen taldearen arabera lortutako puntuak eta eskatzen den dirulaguntzaren zenbatekoa.

— Puntuaren balioa: puntuaren balio ekonomikoa lortzeko, deialdiaren aurrekontu osoa ebaluatutako proiektu guztien puntuen baturaz zatituko da.

— Emango den zenbatekoa: azken dirulaguntza hauen arteko biderketaren emaitza izango da: proiektu bakoitzak puntuaren balioagatik dituen puntuak -betiere, gehienezko muga 20.000,00 eurokoa dela kontuan hartuta- eta erakundeak eskatutako zenbatekoa.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea

Eskaerari honako dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

— Elkartearen helburuak zerrendatzen dituen erregistratutako estatuen orrien fotokopia. Izan ere, estatutuetan, elkartearen helburuen artean euskararen sustapena, erabilera edo normalizazioa agertu behar dira.

— Beharrezkoa izanez gero, elkarteak egindako antzeko proiektuak egiaztatzen dituen dokumentua.

— 1. eranskina. Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko orria.

— 2. eranskina. Proiektua azaltzen duen dokumentua. Banakatze ekonomikoa erantsi behar da, aurrekontu banakatua.

— 3. eranskina. Azpikontratatzeko baimen-eskaera, baldin eta entitate eskatzaileak aurreikusten badu bere proiektuaren exekuzioa partzialki azpikontratatzea lotutako pertsona edo erakundeekin.

Eranskinak webgune honetatik deskarga daitezke: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/j30-01s/contenidoAction.do?lang=es&locale=es&idioma=es&uid=u_ffc6767290fb_7fa2

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta 2026ko irailaren 30ean amaituko da.

8. Eskabidea aurkezteko tokia

Eskabideak, dagokien dokumentazioarekin batera, hauetako baten bitartez aurkeztu ahal izango dira:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/hasiera>). Pertsona juridikoak behartuta daude harremanak bitarteko horren bidez egitera, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

— Herritarrei laguntzeko bulegoetan.

— Posta-bulegoetan, gutun-azal batean, udal zerbitzua (Euskara Zerbitzua) eta posta-helbidea zehaztuta (Fraizacarias Martinez kalea 2).

— Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako beste kanal batzuen bidez.

9. Eskabideak izapidetzea eta ebaztea

Euskara Zerbitzuko udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta organo horrek ofizioz egingo ditu eskatutako dirulaguntzen ebazpen-proposamena jorrazteko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro. Behin eskabideak jaso eta kasu bakoitzean eskatutako betekizunak bete direla egiaztatu ondoren tramiterako onartu eta gero, baloratzeko txosten teknikoa idatziko da, eta instrukzio-organismoak ebazpena emateko eskumena duen organoari (Tokiko Gobernu Batzarra) aurkeztuko dio ebazpen-proposamena.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, balioespen-batzorde bat eratuko da (kide kopuru bakoitia), Euskara Zerbitzuko teknikariek osatua. Rakele Romero, Euskara Zerbitzuko burua; Maddalen Amurrio, Euskara Zerbitzuko teknikaria; eta Itziar Lakarra, Euskara Zerbitzuko teknikaria.

10. Diruz lagundu ezin daitezkeen proiektuak

Proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:

— Elkarreketako langileen gastuak: nominak, gizarte-asegurantza edo elkarreketako langileentzako haborokinak.

— Gastu arruntak: lokalen alokairuak, horniduren fakturak (argia, ura, hasa) edo egunero erabiltzen den bulegoko material suntsikorra.

— Obra zibiletako inbertsioak: lokalen egiturazko erreformak.

— Zerga berreskuragarriak: BEZa ez da diruz lagunduko, onuradunak BEZaren aitorpenak egin behar dituenetan.

11. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Hautatutako proiektu bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kuantifikatzeko, deialdiaren kreditua 6. apartatuan azaldutakoaren arabera lortu den puntuazioa kontuan hartuta banatuko da, gehieneko zenbatekoaren arabera berregokitu ondoren. Zehazki, balioespen-batzordeak proiektuaren aurrekontua berregokitu du, eskatutako kontzepturen bat diruz laguntzeko modukotzat jotzen ez den kasuetan. Ez da inolaz ere gairatuko Euskara Zerbitzuari eskatutako diru-kopurua, eta atal honetan finkatutako muga errespetatzeaz gain, jasotako dirulaguntza ezin izango da inoiz aurkeztutako proiektuaren zenbatekoa baino handiagoa izan.

Jarduera edo proiektua garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketenei gastutzat. Horiei dagokienez, eroste kostuak ezingo du inolaz ere merkatuko baliotik gorakoa izan.

Baldin eta, elkarre eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan, aurreko atalean ezarritakoaren arabera diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko diruz lagundu ahal diren gastuen aurrekontua zehaztean.

Diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko ehunera baino ordain dezake dirulaguntzak, eta proiektu bakoitzeko emango den gehieneko dirulaguntza 20.000,00 eurokoa izango da.

12. Dirulaguntza justifikatzea

Justifikazioa dirulaguntzen udal ordenantzaren 33. atalean ezarritakoaren arabera egin beharko da, justifikazioko kontu arruntaren bidez. Justifikazioa aurkezteko dokumentazioa udalaren web orrian dago jasota https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idio-ma=eu&uid=u1f560f07_14d757ff0f6_7ed7.

Justifikazioko kontu arruntak, gutxienez eta oro har, honako dokumentu hauek jasoko ditu:

a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta.

Agiri hauek erantsi beharko dira:

a.1) Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta, azterlan, programa, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafikoa nahiz idatziaren ale bana.

a.2) Justifikazioak, hala dagokionean, adierazle hauen betetze-maila jaso beharko du:

- Software berriarekin aurreztutako hileko orduen kalkulua.
- Zuzendaritzan edo batzordeetan sartutako kide berrien kopurua.
- Ekintza digitalek izandako irismena (ikustaldiak, entzunaldiak edo partaideak).

a.3) Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, deialdietan onuradunei eskatuko zaie sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa emateko honako hauei buruz:

- Emandako zerbitzuaren onuradunak edo erabiltzaileak;
- Entitateko titullarrak eta plantilla;
- Kontratatu den entitateko plantilla, halakorik bada;
- Aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.

a.4) Proiektuaren emaitza metodologikoak (gidak, protokoloak, auditoriak), beste elkarte batzuentzat eredu izateko balio dezaten.

b) Jarduera justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan behar ditu:

- 1. atala: funts propioen edo beste entitate batzuetatik sortutako justifikazioa.

Proiektua edo jarduera beste erakunde publiko edo pribatu batzuen bidez eta/edo erakunde onuradunaren baliabide propioekin finantzatzen badute bete beharko da atal hau.

- 2. atala: diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuta. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, bai eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

Eskudirutan ordaintzekotan, aintzat hartu beharko da lege ezarritako mugapena.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira hartu izanaren adierazpenak. Edonola ere, hartu izanaren adierazpena sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, zeren eta, kasu horretan, dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Hartu izanaren adierazpenean datu hauek jaso behar dira:

- Jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-deiturak, IFZa eta helbidea
- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZren atxikipena (dagokion ogasunean ordaindu dela egiaztatzen duen agiria).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko, aurkeztutako fakturak eta ordainagiriak 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartean egindakoak izan beharko dira.

- 3. atala: proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea
- 4. atala: langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.

Dirulaguntza jaso duen proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatuko dira, pertsona edo entitate onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) erantsita. Halaber, PFEZaren 110 eta 190 ereduak – hala badagokio – erantsi beharko dira, dagozkien ordainagiriekin batera.

- 5. atala: gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.

Bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatuko dira. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsiko dira (erabilitako garraiobidearen txartelak, tiketak, fakturak...), zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

- Erantzukizunpeko aitortpena, honako alderdi hauei buruz:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea burutzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

- Onuradurak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena (hala badagokio).

- Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian edo hitzarmenean adierazten den ehuneko 8tik gorakoa.

- Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak —zenbatekoak eta jatorriak—, edo, hala izanez gero, non adierazten den ez dela ez eskatu ez eskuratu bestelako laguntzarik.

Proiektuak justifikatzeko azken eguna 2028ko martxoaren 30a izango da.

13. Bestelako dirulaguntza edo laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin beste edozein entitate publikok edo pribatuk ematen dituenekin, gain-finantzetarik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugara arte.

Deialdi honetara aurkeztutako proiektua egikaritzeko beste ente publiko edo administrazio batzuei dirulaguntza eskatu eta lortu duten elkarteek, bestalde, proiektu horri dagokion programan adierazi beharko dute zein ente edo administrazioi eskatu dioten eta onuradunak zenbat diren.

14. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Dirulaguntzak hiru multzotan ordainduko dira, honela antolatuta: deialdiaren ebazpenak onartzean, 2026ko partidaren kargura, ehuneko 50; 2027ko maiatzean, ehuneko 30; eta gainerako ehuneko 20a, dirulaguntza hori behar bezala justifikatu ondoren. Azken bi ordainketa horiek 2027ko partidaren kargura egingo dira.

Ordaindu aurretik, entitate eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatu beharko du.

Nolanahi ere, Euskara Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean, egiaztatuko du onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa azkenean gauzatu dela eta justifikatutako zenbatekoarekin bat datorrela. Guztira exekutatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

15. Entitate onuradunen betebeharrak eta lankidetzakonpromisioa

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren entitateek betebeharrak hauek izango dituzte, nolanahi ere:

- Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, hamabost eguneko epean entitate onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

- Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetzarekin egiten diren programetan, iragarki-karteletan eta gainerako material grafiko, idatzi edo soinu-dunetan berariazko aipamena egitea, horretarako udalaren logotipoa erabiliz. Elementu horiek udalaren irudi korporatiboarekin bat etorrira erabiliko direla zainduko du Euskara Zerbitzuak.

- Genero-roleri buruzko hizkera sexistarik eta estereotiporik ez erabiltzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak arautzen duen bezala. Parte hartzaileen datuak edo proiektuen garapenean sor daitezkeen beste datu batzuk sexuaren arabera bereizita egongo dira.

- Euskara Zerbitzuek antolatzen dituen koordinazio-bileretan parte hartzea (gutxienez, bi saiotara), hiriko elkarte-sarea indartzeko lankidetzak-aukerak ikertzearen.

16. Ezin izango dira onuradun izan

Ezin izango dira pertsona onuradun izan honako inguruabar hauetan daudenak:

- Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso badute.

- Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak genero-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Martxoaren 22ko 2007/3 legean ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

17. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko

Beren proiektuetan jasotako jarduerak osorik edo zati batean azpikontratatu ahalko dituzte entitate onuradunek, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, 29.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate onuradunak berekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahalko du jarduera egikaritzea, osorik edo zati batean, baldin eta dirulaguntzak ematen dituen organoaren aurrean aurkezten badu azpikontratatzeko baimenaren eskaera (III. eranskina), organo horren baimena lortzen badu eta diruz lagundu ahal den zenbateko ez bada lotura duen entitateak eragindako kostua baino handiagoa. Kostua egiaztapenean justifikatu egingo da, eta onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako betekizun berberak beteko dira.

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin egikaritzeko baimena emateko eskumena.

18. Proiektua aldatzea

Diruz lagundutako proiektu edo jardueran funtsezko aldaketaren bat egitekotan, are proiektuaren kostua gutxitzeko ere, eskaera egin beharko zaio Vitoria-Gasteizko Udalari, aldez aurretik. Organo eskudunak berariaz baimendu ondoren bakarrik betearaziko da aldaketa hori.

Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa egiteko baimena ezetsi egin dela ulertuko da.